

Eguberri da Ziburun

2025EKO ABENDUAREN 3TIK 18RA



Eguberri da Ziburun!

«Itzaletik argira, hau da Ziburuko urte amaierako programa honen gaia.

Negua goxoki igarotzeko, irudimena esnatzeko eta elkarrekin harritzeko gonbidapena.

Itzal-antzerkia, txotxongiloak, antzerki musikala, sorkuntza tailerrak eta bestelako une etenak osatuko dute adin eta gustu guzientzako diseinatutako programa argitsu honek.

Utzi zaitez eramaten, harritzen eta txunditzen: Ziburuk, bestak modu desberdinean ospatzera gonbidatzen zaitu, gozotasunean, bihurrieriaz eta magia-puskekin.»

Emilie Dutoya, Kultura, ondarea eta elkarte biziaren ardura duen 3. axuanta

Fanny Lascube, Hizkuntza politikaren ardura duen kontseilari delegatua

EGUTEGIA

Asteaz. 12/03 14:00

Asteaz. 12/03 15:30

Osti. 12/05 19:30

Larun. 12/06 9:30

Larun. 12/06 15:00

Larun. 12/06 17:00

Larun. 12/06 18:30

Asteaz. 12/09 18:00

Asteaz. 12/10 11:00

Asteaz. 12/10 14:00

Asteaz. 12/10 16:00

Osti. 12/12 18:00

Larun. 12/13 9:30

Larun. 12/13 16:00

Larun. 12/13 11:00

Igan. 12/14 10:00-13:00

Igan. 12/14 10:00-13:00

Igan. 12/14 16:00

Asteaz. 12/17 10:00

Asteaz. 12/17 15:00

Oste. 12/18 19:30

Osti. 12/19 18:00





Itzal txotxongiloen sorkuntza tailerra	Mediateka	EUS
Landare-izarren sorkuntza tailerra	Karpa	FR
Ribambelle konpainiaren Le faiseur d'ombres ikuskizuna	Guy Poulou erabilera anitzeko espazioa	FR
Ezohiko liburuen ezagutza saioa	Mediateka	FR
Kontaketa Maddi Zubeldia-ren eskutik	Karpa	EUS
Izarren behatzea	Guy Poulou erabilera anitzeko espazioa	FR
Izarren behatzea	Guy Poulou erabilera anitzeko espazioa	EUS
LagunArte konpainiaren UP! ikuskizuna	Guy Poulou erabilera anitzeko espazioa	Mutua
Itzal txotxongiloen sorkuntza tailerra	Karpa	FR
Kandelen sorkuntza tailerra	Karpa	FR
Linternen sorkuntza tailerra	Karpa	FR
La neige sur le cils konpainiaren <i>Ne m'attends pas</i> ikuskizuna	Guy Poulou erabilera anitzeko espazioa	FR eta errusiera
Ttipientzako irakurketak	Mediateka	FR + EUS
Fotoforoen sorkuntza tailerra	Karpa	FR
<i>Light painting</i> tailerra	Karpa	FR
Liburutegi ibiltaria	Karpa	FR + EUS
Aña txotxongiloaren erabilera tailerra	Frontoia	FR
<i>Ombre et lumière</i> ihes-jokoa	Karpa	FR+ EUS
<i>Et non, la neige ce n'est pas blanc !</i> tailerra	Karpa	FR
<i>Eguzkiarekin margotu</i> tailerra	Sardara gela	FR
Philippe Beau-ren <i>Ombromanie</i> ikuskizuna	Guy Poulou erabilera anitzeko espazioa	Mutua
Olentzeroren desfilea	Larraldenia portutik irteera	EUS

Amets egiteko eta harritzeko ikuskizunak

ABENDUAREN 5A, OSTIRALA, 19:30ETAN

Le faiseur d'ombres

RIBAMBELLE KONPAINIA (NÉRAC - 47)



FR


Ipuin bisuala eta argizatutako txotxongiloak

Lou, beste edozein bezalako haur bat da. Gau batean ipurtargi bihurtuta esnatzen da. Orduan, itsasargi kezkarri baten zaindaria den eta Argien herria kanporatu duen Itzal Sortzaileak mehatxatutako mundu bat aurkitzen du. Azken sugar libre ttipia den Lumignon salbatzeko, Louk poesiaz eta birez betetako inimiziazko bilaketa bati emanen dio hasiera. Argizatutako txotxongiloek, argi efektuek eta irudi digitalen fresko bisual harriarri bat eraikitzen dute, non argia osoki pertsonaia bihurtzen den.

Itzalekin eta argiarekin dugun harremanari buruz galderak eginez, ikuskizun honek harritu egingen gaitu.

OARA-rekin batera ekoitzirik

-  Guy Poulou erabilera anitzeko espazioa
-  7 urtetik aurrerako publiko guzia
-  1:00
-  Erreserba egin behar da



© Matthieu Leonard





ABENDUAREN 9A, ASTEARTEA, 18:00ETAN

UP!

LAGUNARTE KONPAINIA (LA BASTIDE CLAIRENCE – 64)

Bidaia sentsorial eta poetikoa haur ttipientzat

MUTUA

Material sinpleak erabiliz (egurra, metala, harriak, ahotsak) eta eszenografia zaindu batekin, UP!-ek bertikaltasuna, hazteko bultzada eta igotzeko artea aztertzen ditu.

Soinuen, testuren eta keinuen bidez, ikusleek esperientzia intimoa eta kontenplatiboa bat partekatzen dute. 6 hilabetetik aurrerako haurren zentzumenak eta emozioak esnatzen dituen erritual goxo bat.


Xumetasunez eta harriduraz eginiko eten bat.

📍 Guy Poulou erabilera anitzeko espazioa

👤 6 hilabetetik 4 urtera

🕒 30 min

📄 Erreserba egin behar da



© Remi Angeli



ABENDUAREN 12A, OSTIRALA, 18:00ETAN

Ne m'attends pas

LA NEIGE SUR LES CILS KONPAINIA (NANTES - 44)

Txotxongiloak eta irudi bizidunak

FR


RUSSE

Gauero, herri bateko etxeak beste zerumuga batzuetara hegan egiten dute. Baina goiz batean, etxe bat ez da itzultzen, bertako bizilaguna bere ohearekin eta bere amets bete gabeekin bakarrik utziz. Nola egin diezaiokegu aurre gabeziari, nola berrasmatu dezakegu gure eguneroko bizitza?

Umorez eta samurtasunez, txotxongilo eta irudi animatuen ikuskizun honek amets-mundu batera eramaten gaitu, non irudizkoa eta erreala korapilatzen diren. Atxikimenduari, galerari eta norbera berrasmatzeko gaitasunari buruzko alegia delikatu.



-  Guy Poulou erabilera anitzeko espazioa
-  4 urtetik aurrerako publiko guzia
-  40 min
-  Erreserba egin behar da



© MIMA



© Emil Petrov

ABENDUAREN 18A, OSTEGUNA, 19:30ETAN



Ombromanie

PHILIPPE BEAU (PARIS - 75)

MUTUA

Itzal eta argien balleta

Philippe Beau aparteko artistak, argia zizelkatzen du hatz puntekin. Ballet liluragarri batean, bere eskuak txandaka hegazti, aurpegi eta pertsonaia fantastiko bihurtzen dira, itzalen koreografia poetiko eta hipnotiko batean bilakatuz. Hitzik gabe, dohain berezi batekin, haurrak eta helduak gonbidatzen ditu itzala ipuin eta argia konplize bihurtzen diren unibertso aldagaitz batean murgiltzera. Liluratu eta txunditzen duen esperientzia sentikor eta magikoa.

📍 Guy Poulou erabilera anitzeko espazioa

👤 7 urtetik aurrerako publiko guzia

🕒 50 min

📌 Erreserba egin behar da



© Philippe BEAU



ABENDUAREN 19A, OSTIRALA, 18:00ETAN



Olentzero desfilea

ZIBURU EUSKALDUN ETA KASKAROTENEA IKASTOLA

EUS

Ziburu Euskaldun-ek eta Kaskarotenea Ikastolak, abenduaren 19an, 18:00etan hasita, Olentzero abestiekin ospatzera gonbidatzen zaituzte.

Mari Domingiri ongietorria portuan izanen da, ondoren desfilea frontoira mugituko da eta handik, Ziburu zaharreko kaleetan zehar ibiliko da. Berotan gelditzen bazarete, arretaz entzun eta leihoak ireki itzazue; ongi etorri eman berri onen eta berritzearen eramailea den Olentzerori eta baita neguko solstizioari ere.

📍 Irteera Larraldenia portutik

👤 Publiko guzia

📍 Sarrera dohain



Ipuinak eta irakurketak

ABENDUAREN 6A, LARUNBATA, 9:30ETAN

“Argia eta itzala” gaiaren inguruko liburuak ezagutzeko ezohiko saioa

FR

Esnatu zaitez eta pijama jantzita duzula, ireki itzazu begiak eta belarriak: liburu misterioitsu, dibertigarri eta harrigarriak zain dituzu liburutegian. Gardentasun-jokoen, moztutako silueten eta argi-distiren artean, orrialdeek bizia hartzen dute eta modu desberdinetan irakurtzen diren istorioak agerian uzten dituzte. Liburua antzoki txiki bat bezala esploratzeko gonbidapena, non itzalak etengabe argiarekin elkarrizketan aritzen diren.

- 📍 François Rospide Mediateka
- 👤 Familiak eta 4 urtetik aurrerako haurrak
- 📄 Izena ematea beharrezkoa da



ABENDUAREN 6A, LARUNBATA, 15:00ETAN

Ipuin kontaketa

MADDI ZUBELDIA EUS

Murgil zaitez Maddi Zubeldia-rekin batera euskaraz idatzitako haurrentzako album baten (ber) ezagutzan!



- 📍 Frontoiko plazako karpan
- 👤 Familiak eta 4 urtetik aurrerako haurrak
- 📄 Izena ematea beharrezkoa da



ABENDUAREN 13A, LARUNBATA, 9:30ETAN

FR EUS

Ttipi-ttipientzako irakurketak

Elkartu gaitezen, istorio eta haur-kantaz osaturiko esnatze goxo bat egiteko!
Neba-arreba handiak ongi etorriak dira!

Libreplume elkartearekin

- 📍 François Rospide Mediateka
- 👤 0-4 urte
- 📄 Izena ematea beharrezkoa da



ABENDUAREN 14A, IGANDEA, 10:00ETATIK 13:00ETARA

Liburutegi ibiltaria igandeko merkatura dator

FR

EUS

La Fabrique Affamée-ko karparen azpian, mediateka igandeko merkatuaren bihotzean kokatuko da goiz dibertigarri eta atsegin bat igarotzeko. Goizeko 10etatik arratsaldeko 1etara, haur zein helduak gonbidatuta daude aurkikuntza, jolas eta sormen mundu batean murgiltzera.

Aurtengo programaren barnean: irakurketa saio bat goiza hasteko, marrazketa magiko sorkuntza tailerrak eta familia osoarentzako jolas zirrargarriak eta erronka dibertigarriak eskaintzen duen La Grande Illusion karabana.

Une aproposa familiarekin edo lagunekin besten espiritua partekatzeko, amets egin eta gozatzeko, liburuen eta jokoen magia deskubritzen duzun bitartean.

📍 Frontoiko plazako karpan

👤 Publiko guzia

📍 Sarrera dohain



Eguberri sortzailea eta parte-hartzailea

ABENDUAREN 3A, ASTEAZKENA, 14:00ETAN

Itzal-txotxongiloen sorkuntza tailerra

EUS



Haur zein helduak gonbidatuta daude siluetaren magia esploratzera eta, argia eta papera erabiliz, irudizko pertsonaiei bizia ematera. Ondoren, sorkuntza bakoitzari bizia eman dakioke itzal-antzerki ttipi batean, istorioak kontatuz, eszenatoki harrigarriak asmatuz edo, besterik gabe, argiaren jokoarekin liluratuz.

📍 Mediateka

👤 Familiak eta 5 urtetik aurrerako haurrak

📄 Izena ematea beharrezkoa da



ABENDUAREN 3A, ASTEAZKENA, 15:30ETAN

Landare-izarren sorkuntza tailerra

FR

Murgil zaitez Eguberriko giro magikoan zure landare-izarra sortuz!

Aska zure irudimena adarrak, hostoak eta elementu naturalak bilduz apaindura paregabe bat sortzeko. Eskuz egindako izar bakoitzak ukitu bero eta pertsonala emanen die zure ospakizunei.

- 📍 Frontoiko plazako karpan
- 👤 Familiak eta 6 urtetik aurrerako haurrak
- 📍 Izena ematea beharrezkoa da



ABENDUAREN 6A, LARUNBATA, 17:00 ETA 18:30ETAN

Izarren behaketa planetario batean

FR

EUS

Abiatu zaitez bidaia liluragarri batera, konstelazioen, nebulosen eta galaxien bihotzera!

Société d'Astronomie Populaire de la Côte Basque-ko giden iruzkin sutsuek gidatuta, gaueko zeruaren sekretuak eta unibertsoaren mirariak ezagutuko dituzu.

Planetarioko proiektio bakoitzak zientzia eta mirespenna elkartzen duen mundu magiko batera eramane zaitu.

-  Guy Poulou erabilera anitzeko espazioa
-  Familiak eta 5 urtetik aurrerako haurrak
-  Frantsesez 17:00etan eta euskaraz 18:30etan
-  Izena ematea beharrezkoa da



ABENDUAREN 10A, ASTEAZKENA, 11:00ETAN

Itzal-jokoen tailerra

FR

Irudimena pizteko tailer dibertigarria!

Arakatu itzalen eta argiaren mundu liluragarria zure istorioak eta kantik asmatuz. Bakoitzak pertsonaia harrigarriak sor eta bizia hartzen ikus ditzake, eszena barregarriak, poetikoak edo bitxiak sortuz.

- 📍 Frontoiko plazako karpan
- 👤 Familiak eta 3 urtetik aurrerako haurrak
- 📄 Izena ematea beharrezkoa da

ABENDUAREN 10A, ASTEAZKENA, 14:00ETAN

Kandelen sorkuntza tailerra

FR

Ezagutu itzazu Sararekin kandela begetal bat egiteko sekretuak! Ikasi ezazu argizaria, metxak eta lurrin naturalak elkartzen kandela paregabe bat sortzeko. Parte-hartzaile bakoitzak bere sorkuntza pertsonalizatu ahal izanen du eta eskuz egindako sorkuntza batekin joanen da, ospakizunak alaitzeko edo opari gisa emateko.

- 📍 Frontoiko plazako karpan
- 👤 Familiak eta 3 urtetik aurrerako haurrak
- 📄 Izena ematea beharrezkoa da



ABENDUAREN 10A, ASTEAZKENA, 16:00ETAN



Linterna sorkuntza tailerra

FR

Eman tokia sormenari zure linterna propioa eginez!

Arakatu itzazu formak, koloreak eta argi efektuak zure gaualdiak alaituko dituen eta zure etxeari edo gaueko ibilaldiei ukitu magikoa emanen dien linterna paregabe bat sortuz. Sorkuntza bakoitza pertsonalizatu egin daiteke eta distira egiteko prest egonen da.



- 📍 Frontoiko plazako karpan
- 👤 Familiak eta 6 urtetik aurrerako haurrak
- 📄 Izena ematea beharrezkoa da

ABENDUAREN 13A, LARUNBATA, 16:00ETAN



Fotoforooen sorkuntza tailerra

FR

Alaitu itzazu zure ospakizunak zure sorkuntzekin!

Eraldatu kalko-papera artelan distiratsuetan beirateen diseinuak koloreztatuz.

Urrats erraz batzuk jarraituz, fotoforoek argi-joko liluragarriak agertuko dituzte, etxeetan giro leun eta magikoa sortuz.

- 📍 Frontoiko plazako karpan
- 👤 Familiak eta 6 urtetik aurrerako haurrak
- 📄 Izena ematea beharrezkoa da

ABENDUAREN 13A, LARUNBATA, 18:00ETAN

Light Painting tailerra

FR

Ahaztu itzazu pintzelak: hemen, argiak sortzen du artea! Ezagutu ezazu teknika artistiko paregabe bat, non lanparak eta argi-iturriak zure sormen-tresna bihurtzen diren. Mugitu, marraztu eta utzi argia zure inguruan dantzatzen irudi iragankor eta liluragarriak harrapatzeko.

Tailer dibertigarri eta harrigarria, guzientzat eskuragarria, esperimentatzeko, ondo pasatzeko eta Eguberriko magia artelan bihurtzen duten oroigarri argitsu paregabe batekin joateko.

- 📍 Frontoiko plazako karpan
- 👤 Familiak eta 5 urtetik aurrerako haurrak
- 📍 Izena ematea beharrezkoa da



ABENDUAREN 14A, IGANDEA, 10:00ETATIK 13:00ETARA

Aña txotxongiloaren erabilera tailerra

FR

Zatoz Aña erabili eta maneiatzen ikastera, urtarrilaren 16an (ostirala) Ziburuko kaleetan zehar ibili ahal izateko!

- 📍 Frontoiko plaza
- 👤 12 urtetik aurrerako publiko guzia
- 📍 Izena ematea beharrezkoa da



© Mapirudi



ABENDUAREN 14A, IGANDEA, 16:00ETAN



Itzal eta argiak ihes-jokoa

FR

EUS

Murgil zaitez argi izpi bakoitzak sekretu bat agerian uzten duen eta itzal bakoitzak misterio bat ezkutatzen duen mundu batean. Ihes-joko paregabe honetan, kontrasteak manipulatu eta iluntasunean ezkutatutako mezuak deszifratu beharko dituzu ihes egin ahal izateko. Argiarekin jolasten eta itzalen hizkuntza deszifratzen dakitenek bakarrik aterako dira garaile.

- 📍 Frontoiko plazako karpan
- 👤 8tik 14 urterako gazteak
- 📄 Izena ematea beharrezkoa da



ABENDUAREN 17A, ASTEAZKENA, 10:00ETAN

Et non, la neige ce n'est pas blanc ! tailerra

FR

Zure familiarekin argia eta itzala esploratzeko helburuarekin, oparitu zeure buruari une sortzaile bat. Arte plastikoen tailer honetan haurrek eta helduek gure inguruko mundua modu desberdin batean behatzen lortuko dute. Esplorazio sentsorial eta sortzailea da, non teknikak jolas bihurtzen diren, familiako kide bakoitzari nortasunez betetako lan bat sortzeko aukera emanez.

- 📍 Frontoiko plazako karpan
- 👤 Guraso eta seme-alabak
- 📍 Izena ematea beharrezkoa da



ABENDUAREN 17A, ASTEAZKENA, 15:00ETAN



Eguzkiarekin margotu tailerra

FR

Sormena lantzen duen ariketa desberdin baten bila zabilta? Zatoz zianotipoaren artea ezagutzera Science Odyssey-k eskaintzen duen tailer honetan! Imajina ezazu: hosto delikatuak edo zure negatiboak urdin sakon eta aldagaitz inprimaketa bikainetan eraldatzea. Ez ezazu itxaron gehiago zure mundua urdinez tindatzeko!

-  Sardara gela
-  6 urtetik aurrera
-  Izena ematea beharrezkoa da



Eguberri magikoak haur eta helduentzat

ESKOLAK

Aurten ere, Ziburuko herriko haur eta lehen hezkuntzako ikasle guziek arte bisita gidatu batez gozatuko dute Eguberriko oporretan!

Ziburun urte amaiera ospatzeko modu zoragarria!

IDUSKI EDERRA KLUB-A

Eskola-umeez bezala, emanaldiak eskainiko zaizkie Iduski Ederra Klub-eko adinekoei: abenduaren 18an (osteguna), «Ombromanie» ikuskizuna ikusi ahal izanen dute haurrekin batera.

Udaleko langile batek zuzendutako bi tailerretan, CCAS-ari ukitu distiratsu eta atsegina emanen dioten egurrezko mugikorrak eta fotoforoak sortuko dituzte.

ASTIALDI ZENTROA

KiLiKA konpainiak itzal-antzerki tailer bat eskainiko du aisialdi zentroko haur nagusientzat, abenduaren 10eko (asteazkena) arratsaldean. Tailer hau duela hilabete batzuk diziplina honetan trebatu zen animatzaile batekin lankidetzan garatuko da.



MARIE FLEURET HAURTZAINDEGIA

Hurtzaindegiko haurrak eskolako haurrekin bat egunen dute abenduaren 9an izanen den «UP!» ikuskizunean.

Abenduaren 4an (osteguna), itzalen magia iritsiko da hurtzaindegira: haurrak asmatzaile ttipi bihurtuko dira eta itzal-txotxongiloen euskarri paregabe bat sortuko dute. Euskarria amaiturik eta pizturik dagoenean, itzal liluragarri eta mugikorrek proiektatuko ditu hormetan!

ABENDUAREN 19A, OSTIRALA, 10:00ETATIK 15:00ETARA

Eskoletako Olentzero

Herriko eskola guzietako ikasleak Olentzero ikusteko hitzordua ematen dizute!

Goizeko 10etan, haur hezkuntzako ikasleak Herriko Etxearen aurrean egonen dira Eguberriko kantak abesteko.

Eta haur nagusienak alde zaharrean desfilatuko dute 15:00etan hasita, ikazkin ospetsuaren osagarrien bila, karpa handiaren azpian musika-askari baten aurretik!

📍 Frontoiko plaza edo euria eginez gero, parrokiako aretoan (Pocalette karrika)



Informazio praktikoa eta erreserbak

Eguberriko egitarau guzia dohain da.
Tailer guzietan, haurrak heldu batekin egon
behar dute.

Ekitaldi guzietan, frontoiko karpan eta erabilera
anitzeko gunean edariak eta pintxoak eskainiko dira!

Nola egin erreserba?

Telefonoa : 06 10 75 45 61

Mezu elektronikoa : animations@mairiedecibourea.com

Webgunea : <https://billetterie-cibourea.mapado.com/>

Non eta noiz aurkitu Kultura, Ondarea eta Elkarte bizitza Saila?

Asteartetik ostiralera, 8:15etatik 12:00etara

Camille Jullian plaza
Denak Batean eraikina - 2. solairua
64500 Ziburu

 [culturecibourea](https://www.mairie-cibourea.fr)
www.mairie-cibourea.fr
www.ziburuko-hiria.eus

Licence 1 : PLATESV-D-2022-006462

Licence 2 : PLATESV-D-2022-006464 - Licence 3 : PLATESV-D-2022-006463

Lizentzia libreko irudia : Freepik